

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

**HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK**

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA


SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## “Bizikidetzaren bidez” jardunaldiak inauguratu dira Arpilleras erakusketarekin

*Jardunaldiekin jarraitzeko, erakusketarako bisita gidatuak egiteaz gain, sariak banatuko dira eta zineforum eta antzerki saioak izango dira*

Osteguna, 2018.eko apirilak 12

Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako kontseilaria den Ana Ollok gaur parte hartu du “Arpilleras: Memoriaren haritik, etorkizuna josten” erakusketaren inaugurazioan; era horretan, hasiera eman zaio Bakea, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen III. edizioari: “Bizikidetzaren bidez”. Halaber, bertan izan da Roberta Bacic-ek, Conflict textiles enpresaren sortzaileak eta erakusketaren arduradunak.



Roberta Bacic, erakusketaren inaugurazioan zehar.

Erakusketa gaurtik, apirilaren 12tik, 24ra bitarte ikusgai izango da Baluarte Auditorioko hallean. Txile, Argentina, Kolonbia, Peru, Ingalaterra, Ipar Irlanda, Alemania eta Espainiako 30 arpillera hautatu dira. Horietan, emakumeek gatazka egoeretan eta Giza Eskubideen urraketan izandako esperientziak kontatzen dituzte orratzak, haria eta oihal-zatiak erabiliz.

Azken horietan eta erakusketaren ibiltaritzaren medio, emakumeen talde txikiak sortu dira, eta haien bizipenak kontatzeko teknika praktikan jarri dute. Tartean aipatzekoa da “Nire Gernika”, Edurneren historia pertsonalaren narrazioa, familiak gertaera suntsitzaile haren ondorio latzak jasan baitzituen.

Bisitara zehar, Ollok kontseilariak era honetako jardunaldien balioa nabarmendu du “bakearen inguruko kultura sustatzeko eta bizikidetzaren adiskidetzaren prozesuak bultzatzeko”. Horrez gain, azaldu du hirugarren edizio honetan exekutiboak “bereziki kontuan hartu nahi izan dituela generazio berriak, gizarte etikoagoa eta bidezkoagoa eraikitzeko ahots sortzaileak izatera anima daitezela”.

“Nire Gernika”, obretariko bat (argazkia, ConflictTextiles).

## Mahai-ingurua eta lantegiak

Gaur inauguratutako erakusketaren inguruan, bisita gidatuak, mahai-ingurua eta lantegiak ere egingo dira. "Bizikidetzaz harilkatuz etorkizuna josi" izeneko mahai-inguruan gaur Roberta Bacic izango da honako hauekin batera: Iratxe Momoitio eta Idoia Orbe, Gernikako Bake Museokoak; Roser Corbera, Badalonako Fundació Ateneu de Sant Roc-ekoa; eta Ekaitz Goikoetxea, Burlatako Askatasuna Institutukoa.

Era berean, apirilaren 13an, Baluartean arpilleren historiari eta sorrerari buruzko tailer praktikoak egingo dira, eta ikastetxei eta Elkartei zuzenduko zaizkie. Apirilaren 14an, larunbatean, tailer bera egin ahal izango du publikoak oro har, eta arratsaldean bi bisita gidatu egingo dira erakusketaren komisarioarekin. Jarduerak erreserbatzeko honako hauetara idatz dezakezue: [pazyconvivencia@navarra.es](mailto:pazyconvivencia@navarra.es) edo [bizikidetzaz@navarra.es](mailto:bizikidetzaz@navarra.es).


### Zineforuma eta antzerkia

Apirilaren 16an, astelehenean, 12:00etan, "Dibertsitatea, aberastasun iturria" Eskolako I. Lehiaketaren sariak banatuko dira; bertan, Nafarroako Ikastetxeetako lehen eta bigarren hezkuntzako 1.096 ikaslek hartu dute parte.

Saharako Zinemako Nazioarteko Jaialdian saritua izan den "Patria dividida" pelikula ikus ahal izango dugu apirilaren 19an, eta, ondoren, "Abidin Kaid Saleh" Ikus-entzunezko Lanbide Eskolari buruzko elkarrizketa eskainiko dute Omar Ahmed-ek, eskolaren zuzendariak, eta Brahim Chagaf-ek, saharar zinemaren zuzendariak eta eskolako irakasleak. "Patria dividida" lehen film luze erabat sahararra da, Abidin Kaid Saleh Zinema Eskolako lehen promozioiko ikasleek zuzendua eta egina. Pelikulak kontzientziak astintzen ditu, eta adiskidetasunean eta maitasunean oinarritzen da, banatuta dagoen lurreekiko maitasun itzela.

Jardunaldiak apirilaren 22an amaituko dira Proyecto 43-2 konpainiaren "Viaje al fin de la noche" antzezlanarekin. Pablo Rodríguezek zuzendutako lan honetan, protagonistak María San Miguel eta Alfonso Mendiguchía izango dira. "Viaje al fin de la noche" gure lurren oraingo mosaikoa da, terrorismoaren eta indarkeriaren biktimen seme-alaben ahotsekin eta kontakizunekin eraikia.

### Galería de fotos



Varias de las 30 piezas que componen la exposición.



"Mi Gernika", una de las obras (foto ConflictTextiles).